

Street Fighter-ekin esperientzia

<http://www.otakulandia.com/Foros/index.php?topic=2741.msg51103>

Kaixo guztioi! Kontatuko dizuet nire iloba Street Fighter erabili duela... baina jada beste joko batzuk nahi dituela. 9 urte ditu eta itsua da jaiotzetik. Urte amaieran Windows XP zuen PC bat oparitu zioten eta egun erraztasunez erabiltzen du. Eskolako lanak ere MS Word-ean idazten ditu BRAILLE teklatu berezirik gabe.

Nola lortu zuen? Teklen posizioa ikasi zuen JAWS izeneko programa baten bidez; programak, pantaila eta sakatzen dituen tekla, irakurtzen baititu. Era horretan, teklatuaren gainean egindakoaren erantzuna jasotzen du. Ordu asko pasatu zituen jesarrita teklatuaren nagusitasun osoa lortu zuen arte; eta orain, STREET FIGHTER instalatu diote.

Sinestezina da pertsonaia eta aurkaria aukeratzeko ikustea pantailaren zerrendatik. Eta badaki zenbat bizitza geratzen zaizkion uneoro!!!

Izugarri pozten da irabazten doanean; eta jada, jokoaren amaierara heltzea lortu du.

Programa ugari erabiltzen ditu. Guztia pantaila-irakurgailuari esker.

Uste dut, programatzaileen betebeharra, bere moduko jendearentzat jokoak sortzea dela. Nonbaiten irakurri dut entzungailuetan oinarritutako jokoak badirela. Joko horietan, jokalaria joystick-a edo teklatua erabiliz aurreratzen da; eta ingurunearen soinuaren arabera, jakin dezake ate edo leiho bat zabalik dagoen, etab.

Espero dut mezu hau gustatu izana eta guztion artean bilatzen jarraitzea.